



**2011KO AZAROAREN 11KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako azaroaren hamaikan, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia.

Aktan adieraziko da Haizea Mendia Insausti zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2011ko urriaren 14an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Azertu ondoren 2011ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 25 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEITA BOST MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA HIRU EURO ETA HIRUROGEITA HAMABOST ZENTIMO (65.943,75 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- ELEKTRIZITATE HORNIDURAREN KONTRATAZIOA.-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2011ko urriaren 10eko foru aginduaren bitartez, IBERDROLA GENERACION SA (IFZ.:A95075586) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez argindar elektrikoa hornitzeko esparru akordioa (X11028) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluaekin araber, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2011ko azaroaren 8an emandako txostenaren arabera proposatu du hornikuntza elektrikoko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Lazkaoko Udalak izandako argindar kontsumo zenbatetsia kontuan izanik, gutxi gorabehera, urteko ehun eta berrogeita hamazazpi mila (157.000 €) euroko gastua ate-



ratzen da, BEZik gabe. Gastuak segidako traktu izaera iraunkorra du, konpromiso kreditu gaiari dagokion finantza eta aurrekontu xedapenen ondorioetarako.

Hori dela eta, Sektore Publikoetako Kontratuen 30/2007 Legearen 182. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua IBERDROLA GENERACION, S.A. enpresari esleitzea, sinatutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- Esleitzea "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez energia elektrikoa hornitzeko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X11028) IBERDROLA GENERACION S.A. enpresari (IFZ.:A95075586), esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan. Akordioaren oinarritzko atala da honekin batera doan laburpena, prezio unitarioena eta aldiena, 2011ko irailaren 12koa, bere espedientean dagoena.

BIGARREN.- IBERDROLA GENERACION SA, N.I.F.:A95075586, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, funtzional ezberdinetan, elektrizitate kontsumoen gastua jasotzen duten kontusailen kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

Une honetan Haizea Mendia zinegotzia bertaratu da.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 11-11-004 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea, astean 6 egun eta egunean ordu bate. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %24a izango da.

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultur taldeei dirulaguntzak emateko Kultura Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako dirulaguntzak ematea onartzen du:

<u>Taldea</u>	<u>Zenbatekoa</u>
Lazkaotxiki Musika Eskola	2.000,00 €
Goierriko Bertso Eskola	1.150,00 €
Oin Arin Dantza Taldea	4.500,00 €
Kantaka Abesbatza	5.000,00 €
Monja Zistertarrak	400,00 €
Antzar Gazteak	800,00 €
Azki Emakumeen Elkartea	270,00 €
Rwanda Taldea	600,00 €
Ansoategi Elkartea	4.500,00 €
Zawopi	4.500,00 €



Xanbe Abesbatza
Jundajo Txaranga

2.000,00 €
2.000,00 €

VI.- MERKATARIEN ELKARTEA .-

Lazkaoko Merkatarari Elkarteari dirulaguntza emateko Hezkuntza, Euskara eta Zerbitzu Sektorea Batzorde Informatzailearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzararak, aho batez, Lazkaoko Merkatarari Elkarteari honako dirulaguntza ematea onartzen du:

- dinamizazio bulegoa eta teknikariaren zerbitzua mantentzeko mila eta ehun (1.100 €).
- merkatarari elkarteak egindako hainbat ekintzetarako bi mila hirurehun eta berrogeita hamalau (2.354 €).

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hiruak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

